

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIA

HERRITARREKIKO ETA
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

Zientziaren Ibilbidea sortzeko lankidetzahitzarmena sinatu dute

Nafarroako Gobernuak, Iruñeko Udalak, Iruñerriko Mankomunitateak, NUPek eta NICDO sozietate publikoak elkarrekin egiten dute lan dibulgazio zientifikoko espazio ezberdinak definitzeko eta kudeatzeko

Asteartea, 2019.eko martxoak 12

Iruñako Eskualdean erantzukizuna duten erakunde nagusiek astearte honetan sinatu dute Zientziaren Ibilbidea sortzeko lankidetzahitzarmena. Ibilbide horretan, Nafarroako hiriburuan eta inguruetan aire librean kokaturiko dibulgazio zientifikoko hainbat espazio bilduko dira.

Dokumentua honako hauek sinatu dute: Garapen Ekonomikoko lehendakariorde Manu Ayerdik, Nafarroako Gobernuaren izenean; Iruñeko alkateak, Joseba Asironek; Nafarroako Unibertsitate Publikoko errektoreak, Alfonso Carlosenak; Iruñerriko Mankomunitateko lehendakariak, Aritz Ayesak, eta NICDO sozietate publikoko zuzendari kudeatzaileak, Javier Lacunzak.

Hartutako konpromisoaren arabera (eskualdeko beste udalerririk ere batu daitezke), sinatzen duten instituzioek eta erakundeek ibilbideen eta espazioen diseinua eta abian jartzea zehaztuko dute, lanerako egutegia ezarriko dute, eta hezkuntza eta turismorako gidak eta jarduerak egingo dituzte. Halaber, konpromisoa hartu dute lekuen mantentze-lanak eta espazioen eta jardueren finantzaketa diseinatzen.

Hitzarmena lau urtekoa izango da. Hitzarmenaren barruan, Segimendu Batzorde bat sortuko da, eta honako hauek egongo dira bertan: Industria, Energia eta Berrikuntzako Zuzendaritza Nagusiko titularra; Unibertsitate eta Hezkuntza Baliabideetako Zuzendaritza Nagusiko titularra; Mankomunitateko hezkuntza-programaren



Sinaduraren ostean, Zientziaren historia plastilinan erakusketa ikusi dute Planetarioan.



Erakusketara egindako bisitaren irudia.

arduraduna; Iruñeko Udaleko Hiri Bizigarria arloko ordezkaria; eta NUPeko eta Planetarioko Ezagutzaren Hedapeneko arduradun bana, NICDOren izenean. Organo hori arduratuko da laneko urteko plana abian jartzeaz eta akordioen segimendua egiteaz.

Ibilbidearen barruko espazioak

"Zientziaren Ibilbidea" osatuko duen espazio-multzoan ondorengoak sartuko dira:

-Galaxiaren Lorategia (jada Planetarioaren alboan jarria).

-Argako eta Sadarreko ibaiko parkea: flora eta faunako espazioak, lehendik daudenak, ibilbidean hedapen zientifikoko zona bezala sartuko direnak.

-Zientziaren parkea: aire libreko espazioa izango da, eremu hauetan esperimendatzeko: optika, mekanika, hidraulika, akustika eta magnetismoa.

-Bizitzaren bidea: Unibertsoak izandako bilakaera erakutsiko du, *Big Bang-etik* hasi eta gaur egun arte, bilakaerako gertaera garrantzitsuenak markatuaz eta azalduaz.

-Elementuen taula periodiko handia: taula erraldoia sortuko da, Iruñean zehar banatua, elementu kimiko bakoitzari eskainitako espazioekin.

-Uraren parke esperimentalak: uraren propietateak ezagutzeko eta arlo hidraulikoan esperimendatzeko espazioa bezala sortua.

-Zientziako pertsonaia nagusiak: arlo horretan pertsona garrantzitsuenek egindako ibilbidea diseinatuko da, bereziki emakume zientifikoak eta haien aurkikuntzak nabarmenduz.

Hitzarmenean irekita geratu da etorkizunean eremu berriak sortzea adosteko aukera

Galería de fotos



Hitzarmenaren sinadura.